



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Patioa eraldatzen

Diziplinartekoa

Lehen Hezkuntzako 3. zikloa

Irakaslearentzako ikas-egoeraren gida

Inplikaturiko ikasgaiak

Diziplinarteko ikas-egoera bat da, eta tutoreak emateko prestatuta dago. Normalean espezialisten ardurapean egoten diren arloak –ingelesa, heziketa fisikoa eta musika– txertatzeko aukera ematen du, diseinatutako jarduerekin lotutako dinamikak diseinatu baitira.

Musikarako proposamena hainbat jarduerarekin lotuta doa.

Heziketa fisikoa txertatzeko ere oso aproposa da.

Proposamenak:

- Gure aitona-amonen jolasak errekuaratzea eta beste adin batzuetako ikasleei erakustea.
- Gehien gustatzen zaizkien jolasen bilduma egitea (arau argiekin) eta modu praktikoan zabaltzea.

Halaber, ingeleserako proposamena luzatzen da. Izan ere, ikas-egoera honekin batera modu paraleloan landu daitekeen beste ikas-egoera bat diseinatzeko galderak jasotzen dira bertan (ingeleseko espezialista tutoreekin elkarlanean):

- Eta zertan jolasten dira beste herrialde batzuetan?

Jarduera batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz diseinatuta daude. Ikas-egoera martxan jartzen denean, hizkuntza bakoitzari eskaintzen zaion denbora zaindu beharko da, eta beharren eta legearen arabera egokitu.

Gainera, bidean topatzen dugunaren arabera –edo beharren arabera–, jarduerak osatzen, aldatzen... joan gaitezke, baina betiere adostu dugun abiapuntua eta azken xedea aintzat hartuta lan eginez.

Saio-kopurua

Ikas-egoera hiruhileko batean egiteko pentsatuta dago.

Ikas-egoeraren markoa

A. Testuingurua

Ikasleak patioan kokatuko ditugu fisikoki. Ekintza hau patio-ordutik kanpo egingo dugu, hutsik dagoen momentu batean.

Patio-saioak sorrarazten dizkien sentimenduetan jarriko dugu arreta. Sentimendu horiek adierazteko euskarri edo adierazpen osagarri bat sortzeko eskatuko diegu. Ikasle bakoitzak bere espazioa hartuko du. Bakartuta nor bere sentimenduetan murgiltzea proposatzen da. (Agian batzuei ongi etorriko zaie hitz egiteko norbait izatea aldamenean. Eman aukera).

B. Abiapuntua

Nola eralda dezakegu patioa denontzako lekua izan dadin eta denok gustura egon gaitezen?

C. Azken ekoizpena

Proposamena era formal batean (proiektua, maketa eta azalpenak) aurkeztuko da (Zuzendaritza, Gurasoen Elkarte, Udala...).

Aurkezpena *lip dub* ludiko batekin osatuko dugu.

Proposamenaren justifikazioa

A. Proposamenaren xedea

Kalitatezko hezkuntzak ikaskuntza-ingurune segurua, indarkeria gabea, inklusiboa eta eraginkorra behar du izan (Garapen Jasangarrirako 4. helburua).

Badakigu patio-saioetan gauza asko gertatzen direla: indarkeria, diskriminazioa, gatazkak, espazioaren erabilera (gutxi batzuen esku)...

Patioan, gure artean harremanak izaten ditugu, bai eta gatazkak ere. Denon artean antolaketan aldaketak egitea gatazkei aurre egiteko modu bat da.

Natura bertara ekartzeak ere badu emozionalki eragina: ingurune atsegina, zaintzalanak...

Patioa ikasteko eremu indartsua bihurtzea da ikas-egoera honetan proposatzen dena.

Helburua da patioa toki segurua eta denontzat atsegina bihurtzea, behaketaren bitartez hutsuneak detektatu eta hobetzeko proposamenak gauzatuz.

B. Argudiaketa kurrikularra

(Ikusi taula)

C. Helburu didaktikoak

- Testuinguru konkretu bateko egoera problematizatu bati matematikoki, beharrezkoak diren eragiketa sinple eta konbinatuak erabiliz, soluziobidea topatzea eta argudiatzea.

- Prozesuan izaten diren egoeretan magnitude-ordena interpretatzeko eta manipulatzeko estrategiak eta teknikak erabiltzea.
- Dedukzioak eginez eta haiek egiaztatuz, matematikarekin erlazionatutako aieruak egitea.
- Eskalak: proportzionaltasuna eta proportzionaltasunik eza ezberdintzea (biderketa gisa identifikatzea).
- Norberaren ezagutzetatik eta esperientzietatik abiatuz, elementu matematikoen arteko loturak aztertzea eta ulertzea (luzera, masa, edukiera, bolumena eta azalera).
- Irudi geometrikoak diseinuak gauzatzeko erabiltzea; perimetro, azalera eta angeluen erabilera praktikoa gauzatzea.
- Kooperatuz lana aurrera eramatea, taldean malgutasun kognitiboa normalizatzea eta errorea ikasteko aukera gisa baloratzea.
- Erlazioak ikurren bitartez antzematea (=, >, <, ≠).
- Datuak bistaratzeko, kalkulagailua eta kalkulu-orria erabiltzea.
- Egoeraren arabera aurrekontuak egitea.
- Egoerak eskatutako diseinu-proiektuen faseak modu kooperatiboan –eta irizpide objektiboak ezarriz eta material egokiak modu seguruan erabiliz– gauzatzea, ebaluatzea eta komunikatzea.
- Egindako diseinu-proiektuen emaitzak komunikatzea.
- Baliabide digitalak beharren arabera eta modu kritiko eta seguruan erabiltzea edukiak sortzeko.
- Talde-lanetan ongizate emozionala eta soziala bultzatzen duten jarrerak sustatzea.
- Adostutako erronkei aurre eginez herritar aktibo gisa funtzionatzea.
- Naturaren, gizartearen eta kulturaren arteko loturez ohartzea eta iraunkortasunaren aldeko jokabide eta konpromisoak ekintzen bidez gauzatzea.

- Haurren eskubide eta betebeharren lanketa egin ondoren norberaren egoeraz hausnartzeko gai izatea.
- Hizkuntzak baloratzeko eta haiei tokia emateko estrategiak proposatzea.
- Eskolako harremanetan, euskarazko ahozko elkarrekintzetan parte hartzea.
- Erabilitako testu idatzien zein multimodalen zentzu orokorra antzematea eta, behin ulertuta, informazioa jasotzea.
- Gatazkak elkarriketen bitartez kudeatzea.
- Hitzezkoa ez den komunikazioa jasotzea eta kontziente izanez modu egokian erabiltzea.
- Testu idatziak eta multimodalak zenbait euskarritan ekoiztea, eskatutako komunikaziorako eredu egokiak aukeratuz eta edukiaren koherentzia zainduz.
- Landutako testu-motaren edo -generoaren ezaugarriak eta egitura ezagutzea eta testuak horren arabera sortzea, landutako ortografia-irizpideak txertatuz (zuzentzaile ortografikoak erabiltzea).
- Gogoeta metalinguistikoetatik abiatuz testuak zuzentzea.
- Taldeko erantzukizunetan, lanen planifikazioan eta erabakiak hartzean parte-hartze aktiboa izatea, gatazkak elkarriketaren bitartez kudeatuz.
- Norberaren sentimenduak hautematea, eta besteenak kontuan izatea eta zaintzea. Enpatia.
- Sormen-esperientzia ebaluatzea eta ezagutaraztea, komunikazio-estrategia analogikoak eta digitalak erabiliz.
- Sormen-esperientziak gozatzea eta besteenak baloratzea, aniztasunaren eta hezkidetzaren ikuspuntutik.



Argudiaketa kurrikularra

Funtsezko kompetentziak	Deskrip-toreak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
MATEMATIKA				
HKK	1, 2, 3, 5	2. Egoera problematizatuak ebaztea, hainbat teknika, estrategia eta arrazoitzeko modu aplikatuz, jarduteko zenbait modu aztertzeko, soluzioak lortzeko eta ikuspuntu formaletik eta planteatutako testuinguruari loturik baliozkoak direla ziurtatzeko	2.3 Ikaskuntza-egoera baten testuinguruan egoera problematizatu batetik lortutako soluzioen zuzentasun matematikoa eta testuinguruarekiko eta planteatutako galderekiko koherentzia argudiatzea	A. Zenbaki-zentzua 2. Kantitatea Zenbakien magnitude-ordena interpretatzeko eta manipulatzeko estrategiak eta teknikak. * 3. Eragiketa-zentzua Testuinguruan jarritako egoerak ebazteko erabilgarriak diren eragiketa sinpleak edo konbinatuak (batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa) ezagutzeko estrategiak.* 5. Arrazobide proportzionala Egoera proportzionalak eta ez-proportzionalak eguneroko bizitzako problemetan: magnitudeen arteko biderketa-konparazio gisa identifikatzea. * 6. Finantza-hezkuntza Kontsumo arduratsuekin (balioa/prezioa, kalitatea/prezioa eta preziorik onena) eta diruarekin (prezioak, interesak eta beherapenak) lotutako buruketak.* B. Neurri-zentzua 1. Magnitudea Sistema metriko hamartarreko unitate konbentzionalak (luzera, masa, edukiera, bolumena eta azalera), denbora eta gradua (angeluak) eguneroko bizitzako testuinguruetan: unitate egokiak hautatzea eta erabiltzea.* 3. Zenbatespena eta erlazioak Angeluen eta azalaren neurriak konparazioz zenbatestea. C. Espazio-zentzua 1. Bi eta hiru dimentsioko irudi geometrikoak Irudi geometrikoak eguneroko bizitzako objektuetan: elementuak eta horien arteko erlazioak kontuan harturik identifikatzea eta sailkatzea. *
KE	1, 2, 3			
STEM	1, 3, 4, 5	3. Eguneroko bizitzan oinarritutako egoeretan, aieru errazak azterzea, formulatzea eta egiaztatzea edo problema matematikoak planteatzea, modu gidatuan, arrazobidearen eta argudiatzearen balioa aintzat hartuz, haien baliozkotasuna kontrastatzeko, eta ezagutza berria eskuratzeko eta integratzeko.	3.1 Zentzu matematikoein erlazioatutako aieru matematiko errazak formulatzea, patroiak, propietateak eta erlazioak ikertuz, eta dedukzioak eginez eta egiaztatuz.	
KD	1, 2			
KPSII)	1, 3, 4, 5			
HK	1, 4	5. Ideia matematikoen arteko loturak ezagutu eta erabiltzea, eta beste arlo batzuetan edo eguneroko bizitzan inplikaturako matematika identifikatzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz, askotariko egoerak eta testuinguruak interpretatzeko.	5.1 Zenbait elementu matematikoren arteko loturak erabiltzea, norberaren ezagutzak eta esperientziak mobilizatuz.	
EK	1, 2, 3			
KAKK	3	8. Gizarte-trebetasunak garatzea, besteen emozioak eta esperientziak eta aniztasunaren balioa ezagutuz eta errespetatuz, eta esleitutako rolak dituzten lantalde heterogeneoetan aktiboki parte hartuz, matematikako ikasle gisa identitate positiboa eraikitze, ongizate pertsonala sustatzeko eta harreman onuragarriak sortzeko	8.2 Zereginen banaketan laguntzea, esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta errespetatuz, eta helburu partekatutako lortzera zuzendutako kooperazio-estrategia errazak erabiliz.	

				3. Mugimenduak eta transformazioak Antzekotasuna eguneroko bizitzako egoeretan: antzeko irudiak identifikatzea, hasierako patroietatik abiatuta sortzea eta emaitza iragartzea. 4. Bistaratze, arrazoibide eta modelizazio geometrikoa Egoeretan irudi lauen azalerak eta perimetroak kalkulatzeko estrategiak. * D. Zentzu algebraikoa eta pentsamendu konputazionala 3. Erlazioak eta funtzioak Berdintasun- eta desberdintasun-erlazioak eta $<$ eta $>$ ikurren erabilera. Datu ezezagunak ebaztea (letra baten edo sinbolo baten bidez adieraziak), $<$, $>$, $=$ eta $\neq$ ikurren bidez erlazioatutako adierazpen errazetan. * E. Zentzu estokastikoa 1. Antolaketa eta datuen analisia Kalkulagailua eta beste baliabide digital batzuk, hala nola kalkulu-orria, informazio estatistikoa antolatzeke eta datuak zenbait modutan bistartzeko. F. Zentzu sozioafektiboa 1. Norberaren sinesmenak, jarrerak eta emozioak Malgutasun kognitiboa, egokitzapena eta, behar izanez gero, estrategia-aldaketa. Errorea ikasteko aukera gisa baloratzea. *
		INGURUNE		
		1. Informazioa bilatzea eta hautatzea, bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, bai banaka, bai taldean, bai sarean, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz eta teknologia digitalak modu seguru eta iraunkorrean erabiltzeko ohiturak hartuz, hura ezagutza bihurtzeko eta modu antolatuan eta sortzailean komunikatzeko.	1.3. Baliabide digitalak erabiltzea, zereginaren premien eta hezkuntza-testuinguruaren arabera edukiak sortzeko, modu eraginkor eta kritikoan, erabilera seguru eta iraunkorrerako ohiturak hartuz	B. Teknologia eta digitalizazioa 2. Diseinu eta pentsamendu konputazionalako proiektuak Diseinu-proiektuen faseak: beharrak identifikatzea, diseinatzea, prototipoak egitea, probatzea, ebaluatzea eta komunikatzea. * Ziurgabetasun-egoeretakoe estrategiak: estrategia egokitzea eta aldatzea beharrezkoa denean, norberaren eta besteen errorea ikasteko aukera gisa baloratzea. * C. Gizarteak eta lurraldeak 1. Egungo munduaren erronkak Herritartasun aktiboa ingurune analogikoan zein digitalean. Gizartearen eta herritarren partaidetzarako oinarriak eta printzipioak: ikasleen antolaketa-batzordeak, eskola-kontseilua, elkarteak, boluntarioria, sindikatuak ingurune hurbiletik.
		3. Problema diziiplina arteko proiektuen bidez ebaztea, diseinu-pentsamendua eta pentsamendu konputazionala erabiliz, premia zehatzei erantzungo dien produktu sortzaile eta berritzaile bat modu kooperatiboan sortzeko.	3.2. Planteatutako problemen soluzio posibleak diseinatzea, diseinu-pentsamenduko eta pentsamendu konputazionalako teknika sinpleen arabera, proiektu kooperatiboak kudeatzeko oinarritzko estrategien bidez,	

			beharrezko baliabideak kontuan hartuz eta proiektua ebaluatzeko irizpide objektibo zehatzak ezarri. 3.3. Diseinu-problema bati soluzioa emango dion azken produktu bat taldean garatzea, zenbait prototipo edo soluzio digital probatuz eta tresna, gailu, teknika eta material egokiak modu seguruan erabiliz. 3.4. Diseinu-proiektuen emaitzak jakinaraztea, mezua eta formatua entzuleei egokituz, emandako urratsak azalduz, prototipo edo soluzio digital horrek proiektuaren baldintzak zergatik betetzen dituen justifikatuz eta etorkizuneko proiektuetarako erronka posibleak proposatuz.	3. Alfabetatze zibikoa Giza eskubideen eta <u>haurren eskubideen printzipioak eta balioak</u>. Eskubideen eta betebeharren arteko lotura Oinarritzko finantza-hezkuntza: dirua eta bankuak
		4. Norberaren gorputza, eta norberaren eta besteen emozio eta sentimenduak ezagutzea eta horien kontzientzia hartzea, ezagutza zientifikoan oinarritutako ohitura osasungarriak garatuz, ongizate fisikoa, emozionala eta soziala lortzeko.	4.2. Ongizate emozionala eta soziala bultzatzen duten jarrerak sustatzea, norberaren eta besteen emozioak identifikatuz, horiek baliaraziz, harreman afektibo osasungarriak sustatuz eta teknologiaren erabilerari eta aisialdiaren kudeaketari buruz gogoeta eginez	
		5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, horien antolamendua eta ezaugarriak deskribatuz eta horien arteko harremanak ezarri, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkorraren bidez	5.2. Natura-, gizarte- eta kulturaingurune elementuen arteko konexio errazak egitea, haien artean sortzen diren harremanak ulertzen direla erakutsiz. 5.4. Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak baloratzea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatuko dituzten proposamen eta ekintzen bidez.	
EUSKARA ETA GAZTELANIA				
	1. EAEko eta inguruko eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna aitortzea eta baloratzea, ikasleen eta haien inguruko hizkuntzen identifikaziotik eta	1.1 Hizkuntzak eta dialektoak (zeinu-hizkuntzak barne) baloratzea eta errespetatzea, haien ingurune geografikoaren ezaugarri nagusiak	A. Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna Elebiduna eta eleanitza izatearen aberastasun pertsonala baloratzeko estrategiak.	

		interrelaziotik abiatuta, betiere hizkuntzaestereotipoak eta -aurreiritziak baztertzeko, hizkuntza guztiekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa izateko eta euskararen ohiko erabilerarekiko portaera asertiboak sustatzeko.	identifikatuz, baita ikasleen ama- hizkuntzen eta -dialektoen ezaugarri batzuk ere.	*Hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzailea eta desberdinekiko errespetuzkoa, baita ingurune digitaletan ere. *Euskararen erabilera proaktiboa eskola- eta gizarte-bizitzan.
		3. Ahozko testuak eta testu multimodalak koherentziaz, argitasunez eta erregistro egokiz sortzea, ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adierazteko; ezagutza erakitzea; lotura pertsonalak ezartzea; eta askotariko ahozko elkarrekintzetan autonomiaz eta jarrera kooperatibo eta enpatikoz parte hartzea.	3.2 Bat-bateko edo araututako ahozko elkarrekintzetan parte hartzea, hizkuntza-kortesiaren arauak errespetatuz eta entzute aktiboko, kooperazioko eta elkarriketa-enpatiako estrategiak garatuz	B. Komunikazioa 1. Hizkuntzaren erabilerak *Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa. 2. Ulermena, komunikazioa eta ahozko elkarrekintza *Gatazkak elkarriketa bidez kudeatzeko prozesuan, entzute aktiboko estrategiak, asertibitatea eta sormenezko irtenbide-proposamena. *Hitzezkua ez den komunikazioaren oinarritzko elementuak interpretatzeko eta erabiltzeko estrategiak.
		4. Testu idatzi eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea, testu horien zentzu globala, ideia nagusiak eta informazio esplizitua hartuz, eta alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarritzko gogoeta eginez, ezagutza eskuratzeko eta erakitzeko eta askotariko komunikazio-beharrei eta - interesei erantzuteko.	4.1 Zenbait xederi eta interesi erantzuten dioten testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz, zuzeneko inferentziak laguntzarekin eginez eta hitzez hitzeko interpretazioa gaindituz.	3. Irakurmena *Komunikazio-asmoa eta oinarritzko testu-tipologiako giltzarriak: narrazioa, deskribapena, elkarriketa, azalpena eta argudioak. *Testuaren zentzu orokorra identifikatzeko eta baloratzeko estrategiak, informazio esplizitua integratzeko estrategiak eta inferentziak egiteko estrategiak, betiere testu idatziak ulertzeko eta sortzeko prozesuen barruan askotariko dokumentu-iturrietan dauden testuen hitzez hitzeko esanahia gainditzeko
		5. Testu idatzi eta multimodalak zuzentasun gramatikalez eta ortografikoz sortzea, edukiak zuzen sekuentziaz eta plangintzarako, idazketarako, berrikuspenerako eta ediziorako oinarritzko estrategiak aplikatuz, ezagutza erakitzeko eta komunikazio-eskaera zehatzei erantzuteko	5.1 Nolabaiteko zailtasuna duten testu idatzi eta multimodalak zenbait euskarritan sortzea, komunikazio-eskarietarako diskurtso-eredurik egokiena aukeratuz, edukiaren koherentziari eutsiz eta landutako zuzentasun gramatikal eta ortografikoko irizpideak errespetatuz, baita testu idatzi bat sortzeko faseak ere.	4. Idatzizko produkzioa *Aurkezpen zaindua. Aurrerapena ortografia-arauen aplikazioan. Ortografia-zuzentzaileak eta testu-prozesadoreen funtzionalitateak erabiltzen hasteko jarraibideak.
		9. Hizkuntzari buruz gogoeta egitea, testuinguru esanguratsuetako testuak sortzeko eta ulertzeko prozesuetatik abiatuta eta oinarritzko terminologia egokia erabiliz, ikasleak hizkuntzako eta hizkuntza arteko kontzientzia garatzen hasteko eta ahozko eta idatzizko produkzioaren eta ulermenaren trebetasunak hobetzeko	9.2 Norberaren eta besteen testuak gero eta autonomia handiagoz berrikustea eta hobetzea, eta irakurritakoa ulertzeko eta idatzizko adierazpenerako arazo batzuk konpontzea, gogoeta metalinguistikotik abiatuta eta oinarritzko terminologia egokia erabiliz.	D. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan Azentuazioari buruzko orokortzeak behatu eta formulatzeko estrategiak.

		10. Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea eta inklusiboa erabiliz eta hitzaren bidez botere-abusuak atzemanaz eta baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa bultzatzeko.	10.2 Talde-lanean modu aktiboan parte hartzeko oinarritzko estrategiak mobilizatzea, beharrezko laguntzarekin eta planifikazioarekin eta esleitzen zaizkion banako erantzukizunak bere gain hartuz, eta gatazkak elkarriketa bidez kudeatzea, argudiatuz eta sormenezko irtenbideak proposatuz.	
		BALIO ZIBIKO ETA ETIKOETAKO HEZIKETA		
		1. Norbere buruari eta inguruneari buruzko gaiak eztabaidatzea eta argudiatzea, informazio fidagarria bilatuz eta aztertuz, eta horri buruzko jarrera erreflexiboa sortuz, norberaren identitatea eraikitzeke garaian autoezagutza eta autonomia pertsonala sustatzeko.	1.3 Identitatea garatzearekin lotutako oinarritzko kontzeptuen inguruan gogoeta egitea (emozioak eta sentimenduak, autoestimua, adiskidetasuna, maitasuna, familia, kultura...), banakako eta taldeko ikerketa dinamikien bidez.	B. Autoezagutza eta identitatea Emozioen eta sentimenduen heziketa. Autoestimua pertsonala. Adiskidetasuna eta maitasuna. * C. Pentsamendu kritikoa eta autonomia moral Elkarriketaren praktika eta argudiatzeko arauak. Erabakiak hartzea. Besteekiko enpatia. * C. Gizartea, justizia eta demokrazia Gutxiengoekiko, identitate etniko-kulturalakiko eta genero-identitateekiko errespetua. Multikulturalismoa eta migrazioak. * Bizipenetik abiatuta gatazkak ebazteko estrategiak. * E. Iraunkortasuna eta ingurumen-etika Izaki bizidunakiko eta natura-ingurunearekiko enpatia, zainketa eta estimua
		2. Arau eta balio zibiko eta etikoei buruz gogoeta egitea eta argudiatzea, bizitza indibidual eta kolektiborako duten garrantzia antzemanaz, eta horiek modu eraginkorrean eta argudiatuan aplikatuz hainbat testuingurutan, bizikidetzaren baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzeko.	2.1. Posizio moral autonomoa sortzea, deliberazio arrazionalaren bidez eta beste batzuekiko errespetuzko elkarriketaren bidez, zenbait balio eta bizimoduren inguruan. 2.2. Bizikidetzaren baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzea, baita gatazkak konpontzeko konpromisoa ere, halakorik dagoenean, gizakiaren izaera sozial eta politikoari buruzko ikerketatik abiatuta.	
		4. Zalentza jartzeko eta argudiatzeko trebetasuna garatzea, pentsamendu abstraktua oinarritzen duten pentsamendu-ahaleziak erabiliz, diziplinaren oinarritzko ezagutzeekin lotutako elkarriketa kooperatiboetan parte hartzeko.	4.2. Elkarriketa kooperatiboaren bidez besteekin interakzioan jardutea, jokabide giza legezko eta demokratikoak eta balio komunek, errespetuak eta enpatia bideratutakoak modu arrazoitu eta autonomoan hartuz.	
		5. Autoestimua eta ingurunearekiko enpatia garatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak identifikatuz, kudeatuz eta adieraziz, eta besteekin ezagututa eta baloratuz, norberaren,	5.2. Adiskidetasunean, maitasunean eta besteekin eta ingurunearen zainketa oinarritutako jarrera hartzea, beste pertsona batzuekiko eta ingurunearekiko interakzio zibiko	

		besteen eta naturako gainerakoen zaintzan eta estimuan oinarritutako jarrera hartzeko.	eta etikoaren esperientzia afektibotik eta horren inguruko gogoetatik abiatuta.	
		ARTE HEZKUNTZA		
		4. Kolaborazioko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan, elaborazioan eta zabalkundean parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertenezaren zentzua garatzeko.	4.3 Sormen-esperientzia ebaluatzea eta ezagutaraztea, zenbait komunikazio-estrategia analogiko zein digital erabiliz, prozesuaz eta lortutako azken emaitzaz gozatuz, eta besteen iritzia baloratuz, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegiaren bitartez.	B. Plastika eta Ikus Hezkuntza 1. Pertzepzioa eta analisisa Plastika- eta ikus-adierazpenean gehien erabiltzen diren materialak, tresnak, euskarriak eta teknikak 2. Sorkuntza eta interpretazioa Plastika-adierazpeneko bitartekoak, euskarriak eta materialak, arte-formatu garaikideak barne: esperientziazioa eta adierazpena. Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko teknikak. Adierazpen-asmoa hitzez adierazteko jarraibideak.

Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio-adierazleak (irakasleentzat)

A. Hasierako fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
1. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza. Hezkuntzan jarriko dugu arreta. Garapen Jasangarrirako 4. helburuarekin emango diogu hasiera ikas-egoera lantzeari. Euskaraz: https://www.youtube.com/watch?v=h9-iedVkdA Gaztelaniaz (azpiztituluak ingelesez): https://www.youtube.com/watch?v=Axfh2cae7E&t=14s Egoeran eta helburuan zentratuko gara. Nola lotuko dugu patioarekin? (“Instalazio inklusiboak”). <u>Lanerako materiala I: kalitatezko hezkuntza (Garapen Jasangarrirako 4. Helburua).</u> Zer falta da? “Mentimeter”-en bitartez, “Nube de palabras”. Falta dena collageen bitartez irudikatu. Teknika bera; horrekin lotutako artistak... landu.	Erabilitako testu idatzien zein multimodalen zentzu orokorra hautematen du eta, behin ulertuta, informazioa jasotzen du. Sormen-esperientziak gozatzen ditu eta besteenak baloratzen, aniztasunaren eta hezkidetzaren ikuspuntutik. Eskolako harremanetan, euskarazko ahozko elkarrekintzetan parte hartzen du. Gatazkak elkarriketaren bitartez kudeatzen ditu.	<u>Lanerako materiala 1: kalitatezko hezkuntza</u> Bakarkako lana. Collagearen <u>ebaluaketa I: collagea errubrika</u> (Lanean hasi baino lehen, zer ebaluatuko den jakinarazi) Haiek egindako autoebaluazioa irakaslearen datu bilketarekin kontrajartzea eta ikasleei deboluzioa egitea.
2. Umeen eskubideak eta betebeharrak. <u>Lanerako materiala II: umeen eskubide eta betebeharrak</u>	Baliabide digitalak beharren arabera eta modu kritiko eta	Behaketa muntaketa bera egiteko



Eskubideak ezagutu, haiei buruz hausnarketa egin. Eskema egin. Arartekoaren ikus-entzunezko materialaren bitartez lanketa egin: Lanerako materiala III ararteko. Eta betebeharrak? Muntaketa digitala ikasitakoarekin.	seguruan erabiltzen ditu edukiak sortzeko. Haurren eskubide eta betebeharrak landu ondoren, bere egoeraz hausnartzeko gai da. Eskolako harremanetan, euskarazko ahozko elkarrekintzetan parte hartzen du. Gatazkak elkarriketaren bitartez kudeatzen ditu.	momentuan, eta Lanerako materiala I dokumentuan egindako galderari buruzko arrazoinamendua . Ebaluaketa II: eskubideak eta betebeharrak Eurak egindako autoebaluazioa irakaslearen datu bilketarekin kontrajartzea eta ikasleei deboluzioa egitea.
3. GIZA ESKUBIDEAK DIRA ZURE TRESNARIK ONENA - YouTube Abestu eta ikasi. Musika-saioekin lotura egin daiteke? Ikasleekin grabaketa...		
4. Material de trabajo IV: la convención ¿Los derechos son solamente para los niños? ¿Y las niñas? Euskaran gertatzen denarekin alderatu. Beste eredu batzuk aztertu. Nola konponduko genuke arazoa testuan?	Hizkuntzak baloratu eta haiei tokia emateko estrategiak proposatzen ditu. Erabilitako testu idatzien zein multimodalen zentzu orokorra hautematen du eta, behin ulertuta, informazioa jasotzen du. Idatzizko testuak eta testu multimodalak zenbait euskarritan ekoizten ditu, eskatutako komunikaziorako eredu egokiak aukeratuz eta edukiaren koherentzia zainduz.	Material de trabajo IV: la convención Materialean eskatzen dena jasoz, haiek egindako autoebaluazioa irakaslearen datu-bilketarekin kontrajartzea eta ikasleei deboluzioa egitea.

	Gogoeta metalinguistikoetatik abiatuz, testuak zuzentzen ditu.	
5. Ikasitakoa collageari eranstea. Patioa hobetuko dugu? Eraldatuko dugu? Nola? Zein izan daiteke prozedura? Ikasleek proposatutakoa kontuan izan, ikas-egoeran urratsak zehaztuta egon arren.	Dinamika honen bitartez, aurreko ebaluazio-adierazleak osa daitezke.	Behaketa zuzena.

B. Garapen-fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
6. Planoak gauzatzen. Patioan dugunaren behaketa: planoak gauzatzen. Eurek proposatutako prozedura lanerako materiala V: planoak egiten materialarekin aberastu, beharrezkoa bada. Batezbestekoa. Neurtzeko tresnak eta neurriak. Neurriak modu ezberdinetan eman. Neurketak egitean matematikoki gertatzen diren egoerei heldu eta hausnarketa egin. Eskalak. Proportzionaltasuna. Zatiketaren bitartez errealitatea planoetara eraman.	Testuinguru konkretu bateko egoera problematizatu bati matematikoki, beharrezkoak diren eragiketa sinple eta konbinatuak erabiliz, soluziobidea topatu, eta argudiatzen du. Prozesuan gertatzen diren egoeretan, magnitude-ordena interpretatzeko eta manipulatzeko estrategiak eta teknikak erabiltzen ditu. Eskalak: proportzionaltasuna eta proportzionaltasunik eza ezberdintzen ditu (biderketa gisa identifikatzea).	Ebaluazioa III: planoak egiten Eta prozesuaren behaketa. Eurek egindako autoebaluazioa irakaslearen datu-bilketarekin kontrajartzea eta ikasleei deboluzioa egitea.



	Kooperatuz lana aurrera eramatea, taldean malgutasun kognitiboa normalizatzea eta errorea ikasteko aukera gisa baloratzen du. Taldeko erantzukizunetan, lanen planifikazioan eta erabakietan parte-hartze aktiboa du, gatazkak elkarriketaren bitartez kudeatuz.	
7. Patioaren behaketa. <u>Materiala VI: patioko dinamika aztertzen</u> Hitzezkoa ez den komunikazioaren garrantziaren lanketa eta kontzientzia.	Gogoeta metalinguistikoetatik abiatuz, testuak zuzentzen ditu. Hitzezkoa ez den komunikazioa jasotzen du eta, kontziente izanez, modu egokian erabiltzen du. Testu idatziak eta multimodalak ekoizten ditu zenbait euskarritan, eskatutako komunikaziorako eredu egokiak aukeratuz eta edukiaren koherentzia zainduz.	<u>Ebaluazioa IV: komunikazioa</u> <u>Materiala VI: patioko dinamika aztertzen</u> Sortutako txantilo digitala
8 . <u>Material de trabajo VII: especies invasoras y autóctonas</u> Palabras polisémicas. Espezie autoktonoak zein diren jakiteko, iturriei buruzko (amona, aitona, aita, ama...) proposamenak jaso ondoren, lana antolatu (informazio hau jasotzeko, zein hobeto Udala edo herriko lorazainak baino? Eskaera egiteko, testu-mota hau	Erabilitako idatzizko testuen zein testu multimodalen zentzu orokorra hautematen du, eta behin ulertuta, informazioa jasotzen du. Testu idatzi eta multimodalak ekoizten ditu zenbait euskarritan, eskatutako komunikaziorako eredu egokiak aukeratuz eta	<u>Material de trabajo VII: especies invasoras y autóctonas</u> Landare inbaditzaileen fitxaren ekoizpena egiteko lanak.

landu daiteke. Erakundeekin komunikazioa, euskaraz.	edukiaren koherentzia zainduz. Naturaren, gizartearen eta kulturaren arteko loturez ohartzen da, eta iraunkortasunaren aldeko jokabide eta konpromisoak ekintzen bidez gauzatzen ditu.	<u>Evaluación V: compromiso y conexión con la naturaleza</u>
9. Natura berreskuratzea. Nola berreskuratu natura patioan? Animalientzako bizilekuak sortu, landare autoktonoekin "baratze-alorrek" egin, zuhaitz-landaketa... Horrek guztiak hartuko duen espazioaren lanketa eta gauzatzea (luzera-neurriak, hesiekin inguratu nahi baditugu; espazioaren perimetroa...). Talde bakoitzak komunikatu zer egingo duen (grabaketak, ebaluazioa eta autoebaluazioa egiteko). <u>Laanerako materiala VIII: natura berreskuratzea</u>	Testuinguru konkretu bateko egoera problematizatu bati matematikoki, beharrezkoak diren eragiketa sinple eta konbinatuak erabiliz, soluziobidea topatu eta argudiatzen du. Prozesuan gertatzen diren egoeretan, magnitude-ordena interpretatzeko eta manipulatzeko estrategiak eta teknikak erabiltzen ditu. Bere ezagutzetatik eta esperientzietatik abiatuz, elementu matematikoen arteko loturak aztertzen eta ulertzen ditu (luzera, masa, edukiera, bolumena eta azalera). Egoerak eskatutako diseinu-proiektuen faseak modu kooperatiboan egiten ditu, irizpide objektiboak eta material egokiak modu seguruan erabiliz. Egindako lana ebaluatzen eta komunikatzen du.	<u>Ebaluazioa VI: teknologia bizidunak patioan</u> Ikasleek autoebaluazioa egiteko prestatua. Irakasleak jasotakoarekin kontrajartzea.



	Talde-lanetan ongizate emozionala eta soziala bultzatzen duten jarrerak sustatzen ditu.	
10. Patioaren azalera. Patioaren azaleraren lanketa. Perimetroa eta azalera. Luzera-neurriak. Talde-lana. Konparaketarako ikurak. Kalkulagailuaren erabilera. <u>Lanerako materiala IX: patioko azalera</u>	Irudi geometrikoak diseinuak egiteko erabiltzen ditu. Perimetroaren, azaleraren eta angeluen erabilera praktikoa egiten du. Kooperatuz lana aurrera eramatea, taldean malgutasun kognitiboa normalizatzea eta errorea ikasteko aukera gisa baloratzen du. Erlazioak ikurren bitartez hautematen ditu (=, >, <, ≠). Datuak bistaratzeko, kalkulagailua eta kalkulu-orria erabiltzen ditu. Egindako diseinu-proiektuen emaitzak komunikatzen ditu. Talde-lanetan ongizate emozionala eta soziala bultzatzen duten jarrerak sustatzen ditu.	Ebaluazioa Behaketa: <u>Ebaluazioa VII: patioko espazioa</u>
11. Denontzako espazioa. Neskentzako tokiak eta mutilentzako tokiak? Helburua da ondorio honetara iristea: “Denontzako espazioa eta denok parte hartzeko aukera”. “Begi umelak” abestiaren lanketa: <u>Lanerako materiala X: begi umelak</u>	Bere sentimenduak hautematen ditu, eta besteenak kontuan izaten eta zaintzen ditu. Enpatia.	<u>Lanerako materiala X: begi umelak</u> Bertan sortutako bakarkako testua.

12. Datuen azterketa. Aurrez egindako ibilbidea mahaigaineratu, kontziente izan eta behaketan jasotako datuen azterketan zentratu. Horren arabera, materialei/jolasei/eremuei buruzko ikerketa egin (hartzen duten tokia, diseinua eta aurrekontuak zehaztuz). Materialari buruzko informazio-bilketa gaztelaniaz egin daiteke, horretarako erabilitako saioen arabera. Lehentasunak kontuan izanda (eskolako beste kideen iritzia jasota) diseinuak egin planoko eskalan. <u>Lanerako materiala XI datuen azterketa eta proposamenak</u>	Dedukzioak eginez eta egiaztatuz, matematikarekin erlazionatutako aieruak egiten ditu. Eskalak: proportzionaltasuna eta proportzionaltasunik eza ezberdintzen ditu (biderketa gisa identifikatzea). Bere ezagutzetatik eta esperientzietatik abiatuz, elementu matematikoen arteko loturak aztertzen eta ulertzen ditu (luzera, masa, edukiera, bolumena eta azalera). Irudi geometrikoak diseinuak egiteko erabiltzen ditu, perimetroaren, azaleraren eta angeluen erabilera praktikoa eginez.	<u>Lanerako materiala XI: datuen azterketa eta proposamenak</u> Prozesuaren behaketa, lanerako materialaren bidez.
--	---	--

C. Azken fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
13. Maketa. Planoan oinarrituta, eskalan MAKETA gauzatu. Lanaren antolaketa.	Dedukzioak eginez eta egiaztatuz, matematikarekin erlazionatutako aieruak egiten ditu. Eskalak: proportzionaltasuna eta proportzionaltasunik eza ezberdintzen ditu (biderketa gisa identifikatzea).	<u>Ebaluaketa VIII: maketa gauzatzen</u>

	Datuak bistaratzeko, kalkulagailua eta kalkulu-orria erabiltzen ditu. Eskolako harremanetan, euskarazko ahozko elkarrekintzetan parte hartzen du. Taldeko erantzukizunetan, lanen planifikazioan eta erabakietan parte-hartze aktiboa du, gatazkak elkarriketaren bitartez kudeatuz. Sormen-esperientziak ebaluatzen ditu eta ezagutarazten, komunikazio-estrategia analogikoak zein digitalak erabiliz.	
14. Jarduera. Maketarekin batera proiektua aurkeztea komeni da. Aukerak: • <u>Lanerako materiala XII: proiektua</u> Eredu bat izan daiteke (hau, konkretuki, gaztelaniazko “¿Cómo redactar un proyecto?”-tik ateratako informazioarekin egina dago. Ikasleek egindakoa da). • Nola idatzi proiektu bat? Informazioa aurkitu. • ¿Cómo redactar un proyecto? Informazioa aurkitu. Gaztelania lantzea komeni bada, aukera ona izan daiteke.	Prozesuaren arabera, adierazleren bat behatzeko beharra?	



15. Egindakoa komunitatera zabaldu. Antolaketa. <i>Lip dub</i> bat presta dezakegu, hurrengo loturako gaztelaniako bideoa landu (mezua) eta euskaraz sortuz. https://rpp.pe/musica/internacional/los-rabanes-lanzan-version-del-tema-un-millon-de-amigos-junto-a-los-pericos-noticia-1281071	Prozesuaren arabera, adierazleren bat behatzeko beharra?	
16. Eta hemendik aurrera? Jarraipena egiteko, PATIOKO BATZORDEAK ERATZEA?		

Metodologia

A. Printzipioak

Inklusioa bermatzeko, IDU printzipioak txertatuta daude jarduera bakoitzaren diseinuan:

- Inplikatzeko modu ugari ematea.
- Irudikatzeko modu ugari ematea.
- Ekintza- eta adierazpen-modu ugari ematea.

Lehenengo jardueran grabazioak txertatuta daude adibide gisa. Euskaraz eta gaztelaniaz daude, baina beste edozein hizkuntzako grabazioarekin aberastu daiteke (beharren arabera). Jarduera guztietan audioak txertatzea gomendatzen da, hori ere beharren arabera.

Jarduerak, bakarkako hausnarketatik abiatu, eta talde txikietan partekatu, eztabaidatu, adostu eta ondorioetara heldu ondoren, talde handian partekatzeko diseinatu daude. Ikaskuntza kooperatiboko eta elkarren arteko erabakiak hartuz gauzatutako antolaketak proposatzen dira.

Ikaskuntza kooperatiboko materiala ikas-egoera honekin lotutako materialean dago.

Aurrekoa osatzeko materiala: [Pere Pujolas: Aprendizaje Cooperativo](#)

Ikaskuntza kooperatiboko teknikak: [Introducción al Aprendizaje Cooperativo](#) edo [Visor de libros](#)

Proposamena da proiektua hau izatea: egitura eta ezaugarriak kontuan izanda testu-generoa lantzea.

Ikasleek egoera errealak aztertuz, haien kontzientziak piztuz, eta hausnarketaren, elkar jartzearen eta pentsamendu kritikoaren bidean jarritz, lan egiteko modu dinamiko eta parte-hartzailea proposatzen da.

Jardueren bitartez, ikasleak metakognizioa gauzatzera bideratzen dira.

Antolaketaren bitartez, ikaslearen autonomia bultzatuko da.

B. Antolakuntza

Gela talde heterogeneoetan antolatzea proposatzen da. Ikas-egoera hau hiruhileko baterako pentsatuta dagoenez, talde berriak egitea proposatzen da. Hori egiteko, egokia izango litzateke irakasleak taldearen azterketa (profil ezberdinak, beharrak, indarguneak...) eta soziograma bat egitea (Norekin egin nahiko zenuke lan egin? Norekin ez? galderei erantzunez).

Taldean ardurak banatzea komeni da: materialaren arduraduna, idazkaria, bitartekaria eta dinamizatzaileria. Halaber, taldeetako funtzionamenduaren erregulazioa egitea komeni da gelako giroa,klusioa eta lan-giroa bermatzeko. Astero, norberak

egindako lanaren autoebaluazioa egingo dute. Taldeko kideek besteen lana ere baloratuko dute (moduak zainduz, minik eman gabe, eta eraikitzeke helburuarekin).

Taldean egindako lanaren balorazioa eta hobetu beharrekoak ere astero hausnartuko dira, eta erabakiak txantiloietan jasoko dira.

Hau gauzatzeko:

Proposamen sinplifikatua (ikaskuntza kooperatiboko taldeko karguen arloa irakasleak egokitua):

Ikaskuntza kooperatiboko karguak: **koop. eranskina karguak**

Karguen auto ebaluaketa: **koop. eranskina autoebaluaketa**

Taldeko ebaluaketa: **koop. eranskina taldeko ebaluaketa**

Proposamena da ikasleentzat diseinatuta dagoen materiala Classroom-en bitartez partekatzea; modu horretan, autonomia bultzatzeaz gainera, konpetentzia digitala modu esanguratsuan landuko dugu. Materiala koloretan izateko aukera izango dute. Beharren arabera moldaketak egiteko aukera ematen du, eta, horregatik, aniztasunari erantzuna emateko tresna aproposa da.

Jarduera batzuk euskaraz egiteko prestatuta daude, eta beste batzuk gaztelaniaz; baina egin ahala, hizkuntzen erabileraren denborekin jokatu beharko da, zehazten joan beharko da.

Jarduerak LANERAKO MATERIALAZ osatuak daude.
Jardueraren arabera, espazio ezberdinak erabiliko dira.

C. Baliabideak

Material hau lanerako proposamen bat da, baina egoeraren arabera –beharren arabera–, egokitzeko prestatuta dago. Bestalde, material bizia dela esan dezakegu, eguneratu daitekeelako.

Jarduerak aurrera eraman ahal izateko irakasleak sortutako materiala.

Jarduera bakoitzarekin lotutako materiala zehazten da, lotura edo materiala bera ere eskura jarritz.

Ebaluatzeke tresnak jardueren aldamenean zehaztuta daude.

Txostena: IDUaren jarraibideak.

Pikto-ak, iturria: <https://www.pictotraductor.com/>

Baliabide guztiak jarduerekin lotuak daude.

Erabili diren irudiak baimenduak dira.

Ebaluazio-prozesua

Ebaluazioa prozesu guztian zehar gauzatzen da, modu horretan beharren arabera jardueren diseinua egokituz. Jardueren bitartez behatuko diren ebaluazio-adierazleak eta -tresnak zehaztuta daude. Ikas-egoera planteatuta dago jardueren bitartez ebaluazio formatiboa egiteko prozesu guztian zehar.

Ikaslea metakognizioaren bitartez bere prozesuaz kontziente izaten eta hobekuntzak barneratzen laguntzea izango da irakaslearen lan garrantzitsuenetako bat.

Ikasleek argi izan behar dute zer ebaluatuko dugun, hau da, ez dela azken ekoizpena bakarrik baloratuko, hartara pisu handia izango dutela bakoitzak ekoizpenera heltzeko egin duen lanak eta elkar lanak. Jarduera bakoitzean, aintzat hartuko ditugun ebaluazio-adierazleak behatzeko tresnak proposatuta daude. Ikasleek alde aurretik tresnak izatea eta lantzea komeni da, modu horretan argi izango baitute zer eskatzen zaion.

Datu-bilketarako, materialarekin batera txantiloï-proposamena aurkezten da.
(Hasierako maila, erdiko maila eta maila aurreratua)

Eurek egindako autoebaluazioak irakaslearen datu-bilketarekin kontrajarri eta ikasleei deboluzioa egitean, eta ondo egindakoak baloratu eta hurrengorako ideiak ematean, helburua da hurrengoan hobeto egitea (baina... Ekiditu).

Jardueren sekuentzia garatua (ikasleentzat)

1. Jarduera

Hezkuntzan jarriko dugu arreta. Garapen Jasangarrirako 4. helburuarekin emango diogu hasiera ikas-egoeraren lanketari. Irakasleak [LANERAKO MATERIALA I: KALITATEZKO HEZKUNTZA](#) emango dizu.



1 JARDUERA EUSKARAZ PATIOA.m4a




1 JARDUERA GAZTELANIA PATIOA.m4a



[ITURRIA](#)

2. Jarduera



[ITURRIA](#)



[ITURRIA](#)

Bakarka. Idatzi zure hitzekin aurreko esaldiko informazioa.

Hau, “Umeen Eskubideetako” bat da. Bazenekien?

[LANERAKO MATERIALA II: UMEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK](#)
proposamenarekin gai honetan murgilduko gara.

3. Jarduera

[GIZA ESKUBIDEAK DIRA ZURE TRESNARIK ONENA - YouTube](#)

Karaokearen bitartez, gozatu eta ikasi abestia!



4. Jarduera

Para realizar este trabajo contaréis con el [MATERIAL DE TRABAJO IV: LA CONVENCIÓN.](#)



5. Jarduera



Goazen lehenengo jardueran egindako Collagera. Ikasitakoa kontuan hartuta, zerbait gehiago falta dela uste duzue? Zer? Taldeka, eztabaidatu eta **erantsi collageari** zuen ustez patioa hobetzeko falta direnak.

ITURRIA

PATIOA HOBETUKO DUGU? ERALDATUKO DUGU?

NOLA? Zein izan daiteke prozedura?

Egin ideia-zaparrada

ITURRIA

6. Jarduera

Lehenengo urratsa behaketa egitea da. Fisikoki zer dagoen jakiteko, **planoa** egin beharko dugu.



Baina nola? Egin proposamenak bakarka lehenbizi eta talde txikian gero, eta, azkenik, bateratu talde handian.

ITURRIA



Agian **LANERAKO MATERIALA V: PLANOAK EGITEN** materiala ondo etorriko zaizue. Zuek pentsatutakoa materialak dakarren informazioarekin kontrajarri. Dena argi zenuten? Baliagarria izan da?

7. Jarduera

Baina zer gertatzen da patioan? **Behatuko dugu?**



Irakasleak behaketarako txantilo bat proposatuko dizue: **LANERAKO MATERIALA VI: PATIOKO DINAMIKA AZTERTZEN**

Datu-bilketako **emaitzak orokortu, eta behatutakoa bistaratzeko moduko euskarri bat** sortu denon artean. Hura kontuan izan beharko dugu hurrengo jardueran, JASOTAKO DATUAK MAHAIGAINERATZEAN.

8. Jarduera



¿Cuál de estas dos imágenes te parece más amable? ¿En cuál de las dos te sentirías más a gusto?




Puede que tu escuela esté rodeada de naturaleza. Aun así, siempre se puede mejorar. ¿Podemos traer la naturaleza a nuestro patio? ¿Cómo lo haremos? Realizad las propuestas en grupo:

Para poder hacerlo mejor, vamos a ampliar nuestros conocimientos. Para ello, utiliza el [MATERIAL DE TRABAJO VII: ESPECIES INVASORAS Y AUTÓCTONAS.](#)

9. Jarduera

Gaztelaniaz landare autoktono eta inbaditzaileen gaineko lanketa egingo dugu. Oraingoan, aurretiko ezagutzak zabaldu eta animaliek eta landareek naturan duten eragina ere aztertuko dugu. Horretarako, [LANERAKO MATERIALA VIII: NATURA BERRESKURATZEA](#) beharko duzue.



10. Jarduera



Orain badakigu zer landare landatu ditzakegun, bizitza erakartzeko zer erabiliko dugun, eta planoa ere eginga dugu. Baina zein da daukagun **espazioa**? Agian espazio batzuk dauden bezala mantendu nahi dituzue. Orduan, zenbat espazio gelditzen zaizue hobekuntzak egiteko? Goazen honen inguruko lanketa egitera. Zer egingo zenukete zuek? Egin proposamenak.




Osatzeko, erabili [LANERAKO MATERIALA IX: PATIOKO AZALERA](#) materiala.

11. Jarduera



Pentsatzera eramango gaituen abesti baten lanketa egingo dugu, [LANERAKO MATERIALA X: BEGI UMELAK](#) materialaren bitartez.



12. Jarduera

Aurretik egindako lana kontuan hartu behar dugu proposamen konkretu bat aurkezteko; hau da, gure ustez landutako baldintzak beteko lituzkeen **patioaren diseinua egiteko**.

Egindakoa gogora ekartzen (berrikusi orain arte egindako lana):



- KALITATEZKO HEZKUNTZA lortzeko falta ditugunak: COLLAGEAN jasoak.
- Guztion ESKUBIDEAK ERRESPETATUKO DIREN EREMUAK SORTZEA.
- Daukagun ESPAZIOA: PLANOA ETA AZALERA.
- NATURA PATIORA EKARTZEKO LANDARE APROPOSAK ETA ANIMALIENTZAKO TOKIAK.
- Begi umelak: GUZTIONZAKO LEKUA ETA AUKERAK. EMOZIOEN GARRANTZIA.
- PATIOAN GERTATZEN DIREN DINAMIKEN BEHAKETA.

Oraingoan, **behatzean ateratako informazioa aztertuko dugu**. Horren arabera, proposamenak egin eta materialean zentra gaitezke. **LANERAKO MATERIALA XI. DATUEN AZTERKETA ETA PROPOSAMENAK**.

13. Jarduera



Denon artean, MAKETA EGINGO DUGU, ALDEZ AURRETIK EGINDAKO PLANOAN.

3 DIMENTSIOTAN EGINGO DUGU LAN; beraz, bolumena emateko, planoko eskala erabili beharko duzue.

Talde bakoitzak egin beharrekoa zehaztu. Taldekide bakoitza zertaz arduratuko den ere zehaztu.



[ITURRIA](#)

[ITURRIA](#)

[ITURRIA](#)

14. Jarduera

Maketarekin batera proiektua bera ere aurkeztea komeni da. Irakasleak emandako eredua erabiliz sortuko dugu gurea.



[ITURRIA](#)

15. Jarduera

Egindako lana eta adostutako proposamenak **KOMUNIKATZEKO** momentua heldu da.
Nori aurkeztuko diogu? Nola?
Egin antolaketa.



[ITURRIA](#)